

EAEko IRAKASLEAK

ZERBITZU EGINKIZUNAK:

- Luzapenak: [Behin betiko ebazpenak](#) argitaratuta daude. Gora jotzeko errekurtoa: maiatzaren 9ra arte.
- Zerbitzu-eginkizunak hautetsia izateagatik. [Behin betiko ebazpena](#). Gora jotzeko errekurtoa: hilabeteko epean jar daiteke apirilaren 8tik aurrera.

IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENA

Sailaren asmoa ekainaren 2. hamabostaldian ikasturte hasierako esleipena egitea da.

Aurreko ziberrean zabaldutako informazioaren inguruan zalantza batzuk sortu ziren esleipenatarako izan beharreko lan egoeraz. "Lan egoeran" moduan egon behar gara, baina ez ekainean ordezkapenak egiteko, hurrengo ikasturtean lan egiteko baizik.

Hau da, [hemen](#) gure baremoan, gure lan egoeran (L.E. zutabean), 0 agertu behar da.

IRAKASLEAK ETA HEZIKETA BEREZIKO HEZITZAILEAK

22-23rako **PREST_GARA**: Unibertsitatez kanpoko irakasleentzako prestakuntza-ekintzen [Deialdia](#).

Matrikula epeak:

- Lehen eskaera-epea: maiatzaren 20tik ekainaren 3ra arte.
- Bigarren eskaera-epea: 2022ko irailaren 16tik 30era arte.

STEILAS Eskola Publikoaren defentsan tinko!